

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3729

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 30ekoa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilboko Hiri Trenbideko Ibarbengoa aparkalekua eta 1. lineako sarbideak eraikitze proiektua jendaurrean jartzeko dena.

2002an, Eusko Jaurlaritzak Bilboko Hiri Trenbidearen Sare Funtzionalari buruzko azterlana egiteko agindu zuen. Azterlan horretan, Bilboko burdinbide- eta trenbide-sarearentzako zenbait alternatiba aztertu ziren, oinarritzko bi helburu oinarritzat harturik. Batetik, hiriko lineak eskualdera zabaltzen laguntzea, eta bestetik, eskualdeak irisgarritasunean dituen gabeziei erantzutea, baldin eta izaten diren bidaien kopuruak justifikatzen badu zerbitzu berriak eta azpiegitura ezartzea garraio arloan.

Ondorioz, 2005eko otsailaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak behin betiko onarpena eman zion Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialean egindako aldaketari. Aldaketa hori Bilbo Metropolitarrako eremuko tren-antolamenduari buruzkoa zen.

Aldaketa horretan, besteak beste, Maidaganeko trenbide-pasagunea kentzea eta Bilboko Hiri Trenbideko 1. linean Ibarbegoako (Iberbergano, orduko dokumentuan) geltoki berria kentzea jasota zeuden. Geltoki hura lurraldeari zerbitzua emateko eta ibilgailu pribatua trukatzuz trenbidea elikatze sortu zen.

Bi obra horiek (lurperatzea eta geltoki berria eraikitzea) bukatu beharra dago, aparkalekua eraikiz, elementu osagarritzat jotzen baita Trenbide Sektorearen Araudiko 3.1 artikuluan.

Aparkaleku horretan, 300 bat plaza egongo dira, kale mailako solairuan eta lur azpiko bi solairutan egongo direnak, eta horri gehitu behar zaio aparkalekuan sartzeko bide bat, Ormaza kaletik geltokiraino doana, bai eta oinezkoentzako beste bide bat ere.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoen alde aurretiko ikuskapena eta aldeko txostena zirelarik, data honetako ebazpenaz teknikoki eta behin-behinean onartu da dokumentua; txosten hartan honako hauek egiaztatu ziren: teknikoki egia zela eta trenbideen arloko arauak betetzen dituela.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren sorrerari buruzko 1975eko abenduaren 30eko 44/1975 Legearen 4.3 artikuluekin eta hura garatzen duten xedapenekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak onartu eta Garraio eta Herri Lan Sailak idatzi eta onartu behar ditu Bilboko Trenbidearen sarearen azpiegiturako lanak egiteko proiektuak. Horretarako, alde aurretik Bizkaiko Garraio Partzuergoari entzun behar zaio; hark aldeko txostena eman zuen, 2013ko uztailaren 17an.

Bilboko Hiri Trenbideari buruzko proiektuak idatzi eta onartzeko eskumenak ditu organo horrek, hala xedatuta baitago Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.1.d) artikuluan.

Trenbide Sektorearen Araudiko 10.6 artikuluan ezartzen denez, eraikitze-proiektua behin betiko onartu aurretik, 30 egun balioduneko epean jendaurrean jarri beharko da; hala, trazaduen kon-

tzepzio globalaren gaineko alegazioak formulatu ahal izateko, betiere interes orokorrari eragiten zaion heinean.

Era berean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluekin bat etorriz, ingurumen arloko organoak erabaki du ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa izapidetu beharrik ez dagoela.

Beraz, aipatutako xedapenak eta dagozkion gainerako aplikagarri guztiak kontuan harturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Bilboko Hiri Trenbideko Ibarbengoa aparkalekua eta 1. lineako sarbideak eraikitzeko proiektua entzunaldiaren eta jendaurrean erakusteko izapidetik pasatzea; hala, ebazpen hau azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik harako hogeita hamar eguneko epean, trazaduraren kontzepzio globalari dagokionez eta interes orokorrari eragiten zaion heinean, korporazioek, toki-erakundeek, elkarteek eta partikularren egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe horretan, jendeak leku hauetan eskuratu ahal izango du eraikitze-proiektua: Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (Donostia kalea 1, Gasteiz); Getxoko Udala; eta Interneteko www.euskadi.net web-orria, aipatutako sailari dagokion atalean.

Eta horrela jakinarazten da jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 30a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.